

GUZTI  
ON

Astigarraga

Tokiko merkataritza  
eta presentzia digitala  
indartzeko **urrats berriak****HERRIA**

**Geriza:** haur eta nerabeen ongizatea sustatzeko proiektua abian da

4

**EKINTZA ERAGILEAK**

Astigarraren elkarrekin 50 urteko bidea ospatzen ari da kultur egitarau oparoarekin

9

**IRITZIA**

Euskaraldiaren biharamuna

11

## 1 Nuevos vehículos para mejorar los servicios municipales

El Ayuntamiento ha ampliado el parque móvil con dos nuevos vehículos: uno para la Policía Municipal, más adaptable, de bajas emisiones y preparado para circular por todo el municipio; y otro para la brigada de obras y servicios, con el objetivo de mejorar la atención a la ciudadanía.

Estos departamentos se han reforzado recientemente, no solo con nuevos recursos materiales como los vehículos o el nuevo local de la brigada, sino también con más personal.

En el caso de la Policía Municipal, se han ampliado la plantilla y el servicio, que ahora cuenta con un equipo de nueve agentes.

Todas estas mejoras responden al crecimiento del municipio y buscan ofrecer un mejor servicio público.



## 2

	X 1.000 BIZTANLE DELIKUENTZIA TASA			
	TASA DELICTIVA X CADA 1.000 HABITANTES			
<b>EUSKADI</b>	2023	47,48	2024	63,31
<b>GIPUZKOA</b>	2023	44,07	2024	60,08
<b>ASTIGARRAGA</b>	2023	28,44	2024	32,59

ARAU-HAUSTE PENAL EZAGUNAK / INFRACCIONES PENALES CONOCIDAS	ASTIGARRAGA	
	2023	2024 %
ZIBERDELITUAK / CIBERDELITOS	55	-8,11
SEGURTASUN KOLEKTIBOAREN AURKAKOAK / CONTRA COLECTIVOS	16	-37,96
INDARKERIAK/LARDERIA ERABILIZ EGINDAKO LAPURRETAK / ROBO CON VIOLENCIA E INTIMIDACIÓN	0	0

UDALTZAINAK TRAMITATUTAKO AKTAK / ACTAS TRAMITADAS POR LA POLICÍA MUNICIPAL	2024
Ordenantzenatik / Ordenanzas	10
Trafiko salaketak / Denuncias por infracción de tráfico	475
Atestatu istripuengatik / Por atestados de tráfico	28

## 2 Astigarraga, EAEko udalerrri seguruenen artean

Astigarragak Euskadiko delinkuentzia tasa txikienetako bati eutsi dio 2024an: 32,59 delitu 1.000 biztanleko (Gipuzkoako delitu-tasa 60,08koa da eta EAEkoa eta Euskadin 63,31).

Udaltzaingoak eta Ertzaintzak batera egindako azken memoriaren arabera, indarkeria erabiliz egindako lapurretak desagertu egin dira, eta behera egin dute kolektiboaren aurkako delituek (-%37,93), genero eta etxeko indarkeriek (-%53,57) eta ziberdelituek (-%8,11). Enpresei eta saltokiei egindako lapurretak, berriz, %44,11 igo dira.

Udaltzaingoak hamar akta tramitatu ditu ordenantzenatik, 475 trafiko salaketengatik eta 28 atestatu istripuengatik.

Astigarraga udalerrri segurua da eta kriminalitate indize baxua izaten jarraitzen du.

## 3 Herri Eskolaren handitzea: obrak amaituta eta ikasgela berriak bidean

Herri Eskola handitzeko lanak amaitu dituzte, ikastetxearen beharrei erantzuteko urrats garrantzitsua. Eraikin berria gaur egungoarekin lotuta dago, barrutik, lehen eta bigarren solairuko korridoreen bidez, eta patiotik sarbide autonomo bati esker.

Handitzearekin 1.600 m<sup>2</sup> inguru irabazi ditu eskolak, eta bertan hamabi gela berri eraiki dira (lau solairuko): erabilera anitzeko espazioak, gela txikiagoak, biltegiak eta haurrentzako jolas elementu batzuk eraikinaren ondoan.

Eraikin berria 2025-2026 ikasturteko irailean egongo da martxan, eta ikasleen ikasketa baldintzak eta espazioa nabarmen hobetuko ditu.



## 4 Astigarragak oinezkoen segurtasuna indartu du neurri berrieekin

Astigarragako Udalak hainbat neurri hartu ditu oinezkoei segurtasun handiagoa bermatzeko eta udalerrian zehar mugikortasun lasaiagoa eta erosoagoa errazteko.

Lau gune estrategikotan —Tranbian, Donostiako ibilbidean, Galtzaur kalean eta Astondo bidean— konkorrak jarri dira, oinezkoen pasabideak babesteko eta zirkulazioaren abiadura murrizteko jende asko biltzen den edo arriskua sumatzen den eremuetan.

Horrez gain, seinale berriak jarri dira hirigunean 3,5 tonatik gorako kamioien zirkulazioa murrizteko, eta, hartara, ibilgailu astunen joan-etorria murrizteko herrian zehar.



## 5 Mejoras de accesibilidad en Emakumeon Etxea

A finales de junio, cuando termine el curso, comenzarán las obras para mejorar la accesibilidad en Emakumeon Etxea. El objetivo es garantizar a todas las personas un espacio más accesible e inclusivo.

Se derribarán los baños actuales y se construirán unos nuevos accesibles. Además, el espacio que ahora se usa como almacén se transformará en una zona de acogida más íntima, y se habilitará otro espacio como almacén. También se realizarán trabajos de pintura.

Las obras han sido adjudicadas a la empresa IPURU S.L. por un importe de 24.058,25 € (IVA incluido).

Con estas actuaciones, el Ayuntamiento sigue dando pasos en su compromiso con la igualdad y la mejora de los espacios públicos.


## 6 Apeztegiako igogailu berria martxan da

Astigarragak igogailu publiko berria dauka, Apeztegi plaza Foru plazarekin lotzen duena. Udaletxea, herri eskola edo kiroldegia bezalako funtsezko zerbitzuetarako irisgarritasuna hobetu du zerbitzu berriak. Hamahiru laguntzako eta 1.000 kg-rentzako gaitasuna du, ingurune naturalean erabat integratuta dago eta dagoeneko normaltasunez funtzionatzen du.

Bigarren igogailu horrek, Arroitxulokoarekin batera, udalerriko bi eremu erabilienak lotzen ditu, eta udalak mugikortasun irisgarriarekin duen konpromisoa indartzen du.

Horrez gain, lan osagarriak egin dira Apeztegin, mozketak eta garbiketak, besteak beste.

Jarduera horiek 2024-2027 Irisgarritasun Planaren barruan sartzen dira. Planak, udaletxea eta Emakumeon Etxea bezalako eraikinetan hobekuntzak egitea ere aurreikusten du, herritar guztiei irisgarritasun bera emateko.



# Geriza:

## haur eta nerabeen ongizatea sustatzeko proiektua abian da



Udalak, tokiko eragileekin elkarlanean, herriko haur eta nerabeen ongizatearen aldeko hainbat lanketa abian ditu. Ekimen guztiak Geriza marka berriaren izenpean bilduko dira.

**H**aur eta nerabeen ongizatea sustatzeko helburuarekin, udalak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu (gizarte zerbitzuak, gazteria saila...). Horrez gain, azken hilabeteetan, herriko hezkuntza, aisia eta kirol arloetako eragileekin elkarlanean, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Legean oinarritutako lanketa berezian dago murgilduta.

Batetik, udalak protokoloak egiteko laguntza eta prestakuntza eman die herriko eragileei, eta hortik abiatuta, elkarreetako ongizate-arduradunek osatutako sarea sortu da. Otsailean sare horren lehen bilera egin zuten, haur eta nerabeekin lan egitean sortzen diren kezkek, zalantzak, prozedurak... partekatu eta modu eraginkorra goan landu ahal izateko.

Bestetik, udalak abian duen protokoloa uda aurretik amaituta egotea aurreikusten da eta jokabide-kode bat ere lantzen ari da. Ondoren, herriko eragileei ere zabalduko die eta bi lan saio egin dira maiatzean eta ekainean. Dokumentuaren helburua da zein ja-

rrera onartzen diren eta zein ez jasotzea. Udalerrian adingabeekin harreman zuzena duten elkarte eta enpresa guztiak bete eta sinatu beharko dute jokabide-kodea. Arlo honetan prebentzio komunitarioa ezinbestekoa da, eta udalak beharrezkoa ikusten du baliabideak eta prestakuntza saioak etengabe eskaintzea.

Garrantzitsua da, era berean, herri mailan egiten diren prozesuetan haurrak eta nerabeak aintzat hartzea. Hori dela eta, udalak haur eta nerabeen perfila ere kontutan hartuko du orain abiatuko duen zaintzaren inguruko herri-hausnarketa prozesuan.

### Geriza marka berria

Aipatu bezala, egun badira herrian haur eta nerabeen ongizatearen aldeko hainbat zerbitzu eta ekimen. Baliabide horiek guztiak bateratzeko eta sartzeko udalak marka berri bat sortu du: "Geriza -haur eta nerabeen ongizatearen herria-". Markak zuhaitz baten itzalpean sentitzen dugun segurtasuna eta babesa irudikatzen ditu; herri oso baten geriza kimu gazteak hazi daitezten.

## GERIZA: un proyecto para promover el bienestar de la infancia y la adolescencia

El ayuntamiento, en colaboración con agentes locales, tiene en marcha diversas iniciativas que se agruparán bajo la nueva marca Geriza.

En los últimos meses, se ha trabajado junto a entidades educativas, deportivas y de ocio en el desarrollo de protocolos basados en la Ley de Protección Integral a la Infancia y la Adolescencia. Se ha creado una red de responsables de bienestar en las asociaciones locales, y se está elaborando un código de conducta que deberán firmar todas las entidades que trabajen con menores. Además, la participación de niños, niñas y adolescentes estará integrada en el proceso comunitario de reflexión sobre los cuidados que comenzará próximamente.

Todas estas iniciativas se enmarcan bajo el nuevo nombre 'Geriza' (sombra, cobijo) que simboliza un entorno seguro y protector para el crecimiento de las personas más jóvenes.



## HAUR ETA NERABEEN ARLOAN DAGOEN ESKAINTZA

Udalak haur eta nerabeen ongizatea sustatzeko helburua duten hainbat programa eta zerbitzu ditu:

<b>GIZARTE ZERBITZUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurren eta nerabeen garapenerako dirulaguntzak.</li> <li>• Gizarte arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua (psikologoa eta hezitzaileak).</li> </ul>
<b>HEZKUNTZA</b>	<p>Udala Oinherri, herri hezitzaileen sareko bazkide da. Horretaz gain, badira hezkuntzaren arloan eskaintzen diren hainbat baliabide:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Errefortzu akademikorako dirulaguntzak.</li> <li>• Eskola materiala erosteko dirulaguntzak.</li> <li>• Herri Eskolan eta Arantzazuko Aman esku hartzeak (harreman osasuntsuak, ingurune digitala, harreman sexu-afektiboak).</li> <li>• Gurasoak trebatzeko hitzaldiak.</li> </ul>
<b>GAZTERIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaztelekuan egiten diren lanketa eta esku hartzeak.</li> </ul>

# Astigar elkarteak 50 urteko bidea ospatzen ari da kultur egitarau oparoarekin

Astigar elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten, eta martxotik urrira bitarte hainbat ekimen antolatu ditu: emanaldiak, erakusketak, omenaldiak, erromeriak, eta abar.

2025. urtea berezia izaten ari da Astigar elkartearentzat. Herriko dantza eta kultura sustatzeko sortua, elkarteak 50 urte bete ditu eta urteurrena ospatzeko egitarau zabala prestatu dute. Urteko lehen hilabeteetan jada antolatu dituzte hainbat ekitaldi:

Martxoan ospatu zen Ziririkoketa, Ihauteri giroan, herriko dantzari, musikari, bertsolari eta txarangekin, kaleak alaituz eta tradizioari helduta. Hilabete berean, Irradaka ekitaldian herriko emakumeek hartu zuten protagonismoa, 50 dantzari bilduta erronka berezi batean. Maiatzeko azken igandean, Dantzari Txiki egunak astigartar, añorgatar eta antiguar haurren dantzak bildu zituen, eta ekainean 85 urtetik gorako herritarrei eskainitako Zaharren Omenaldia ospatu zen, meza, dantza eta bazkariarekin.

## Urrira bitarte hainbat ekitaldiz gozatu ahal izango da oraindik

Uztailaren 11n, elkartearen ibilbidea jasoko duen dokumentala eta historia liburuxka aurkeztuko dira, eta hilabete horretan bertan, jaietako pregoia eta emanaldi bereziak izango dira. Ohiko Astigar Dantza Taldearen emanaldia uztailaren 25ean izango da, eta abuztuan San Roke erromeria, herritarren parte-hartze zabalarekin. Irailan, Galiziako Boiro herriko dantza-

riek bisitatuko dute Astigarraga, truke kultural baten baitan. 1976an hasi zen eta etenik gabe 50 urtez ospatu den emanaldi honek urteurrenari ukitu berezia emango dio.

Ospakizunaren itxiera urrian egingo dute, Kultur Astearekin. Bertan programazio zabala aurreikusten da: erakusketak, hitzaldiak, euskal kantaldia, eta ekitaldi ofiziala dantza emanaldi bereziarekin.

### PROGRAMA

**Uztailak 11** - 'Astigarraga 2025' aldizkariaren eta 50. urteurreneko dokumentalaren aurkezpena.

**Uztailak 19** - Jaietako preludioa.

**Uztailak 24** - Jaien pregoia eta txupinazoa.

**Uztailak 25** - Astigar Dantza Taldearen emanaldia, dantza eskolako kide guztiekin.

**Abuztuak 16** - San Roke Erromeria.

**Irailak 27-28** - Boiroko dantzariekin trukea.

**Urriak 13-19** - Kultur Astea:

- Astigar elkartearen historiaren inguruko erakusketa.
- Herri mugimenduaren inguruko hausnarketa herriko elkarte eta taldeekin.
- Euskal kantaldia.
- Ekitaldi Ofiziala (kalejira, dantza emanaldi berria...).



## La asociación Astigar celebra su 50 aniversario con un amplio programa cultural

El año 2025 está siendo especial para la asociación Astigar. Fundada para promover la danza y la cultura de Astigarraga, la asociación ha cumplido 50 años y ha preparado un amplio programa de actos para celebrarlo. Ya se han llevado a cabo varias actividades en los primeros meses del año, y para los próximos también han preparado una programación cultural muy completa. En julio, se presentará un documental y una publicación sobre la historia de la asociación, y también se celebrará el pregón de fiestas junto con varios espectáculos especiales. El día 25 tendrá lugar la actuación habitual del grupo de danza Astigar, y en agosto se organizará la tradicional romería de San Roque, con amplia participación popular. En septiembre, el grupo de danzas del pueblo gallego de Boiro visitará Astigarraga dentro de un intercambio cultural anual. Esta actuación, que se celebra ininterrumpidamente desde 1976, cumplirá su 50ª edición, aportando un valor simbólico al aniversario.

Los actos de celebración culminarán en octubre, con la Semana Cultural, que incluirá una programación variada con exposiciones, charlas, una velada de música vasca y un acto oficial con una actuación especial de danza.



## Joxe Mari Alberro: “Sagardoetxea herrira ireki behar da”

2006an sortu zenetik da, Sagardoetxeako buru Joxe Mari Alberro, Sagardoaren ondarearen defendatzaile sutsua, bizitza ia osoa eskaini dio sustraiak gure lurraldean sakontzen dituen tradizioa zaindu, zabaldu eta mundura proiektatzeari. Astigar elkartearen hasi eta museoaren nazioartekotzeraino, kulturarekiko, hezkuntzarekiko eta komunitatearekiko konpromiso irmoaren isla da bere ibilbidea.

**Nola hasi zen zure harremana sagardoaren munduarekin eta zerk eraman zintuen Sagardoetxea zuzentzera?**

Aurten Astigar elkartearen 50. urterrena dugu, gaztetan eratu genuen elkarte, eta bertan hasi ginen sagardoaren inguruan lanean. Orduan ezer ere ez zegoen, txotx bolada eta sagardotegi gutxi batzuk salbu. Gurasoek kontatzen ziguten Astigarragara, Hernanira eta ingurura Donostiatik jende pila bat etortzen zela tranbian eta hori berreskuratu nahi genuen. Santa Ana egunean Euskal Herriko lehen sagardo eguna antolatu genuen, baita Sagardoetxea egiteko proiektu bat aurkeztu ere, garai horretan bertan gelditu zena.

Gainera, nire ikasketetan eta lanean aurrera egin ahala sagardoarekin lotura estutzen joan nintzen. Ingeniari gisa aritzen nintzen eta frutikultura bezalako ikastaroak egiten nituen. Dominic Legadec ezagutu nuen, iparraldeko sagardogile bat eta Sagarteka SL eratu genuen. 2003an Astigarragako Udalak, Sagardun Patzuergoa eratu zuen eta kudeaketarako postu bat atera zuten. Aurkeztu egin nintzen eta orduan hasi nintzen bertako zuzendaritzan, orain arte. Nire lehen helburua Sagardoetxea sortzea izan zen. 2006an ireki zituen atea.

**Sagardoetxeak 12.000 bisitari inguru izan ditu ia. Zeri egozten diozu hazkunde hori?**

Nire ustez hiru arlo daude azpimarratzeko. Alde batetik txotx boladatik kanpo antolatzen ditugun jardunaldi guztiak: Udazken Zaperez, Sagardo Forum, Gabon Giroan eta abar. Bestetik, hez-

kuntzan eta hirugarren adinean indar asko jarri genuen, eta material didaktikoa sortu. Horrela, eskola, ikastola eta hirugarren adineko elkarteetatik jende asko hurbiltzea lortu genuen. Eta, azkenik, turismoarekin egin ditugun lotu-  
rengatik, bisitariak urbiltzen dira.

**Zer berrikuntza ezarri dituzu zure gestioan, museoaren arrakastarako funtsezkotzat jotzen dituzunak?**

Garrantzitsuena niretzat hemen izan dugun ekipo sendoa izan da, hori gabe ez dago ezer lortzerik. Bestetik, gurea museo txikia izanda, berrikuntzak baino elkarlana eta harremanak landu ditugu. Beste museo batzuekin elkarlanean sortu genuen, adibidez, Gastromuseums, Euskadiko Zazpi Museok osatzen dugun elkarte. Elkarlana batzuek besteengandik ikasteko oso aberasgarria iruditzen zaigu, baita “ferrietan” presente egoteko ere, bakarrik joateko ez baikenuen aukerarik. Sagardo Forum antolatzen hasi ginenean nazioarteko harreman asko egin genituen eta CiderLands osatu genuen hainbat herrialderekin: Frantzia, Ingalaterra, Alemania, eta abar.

**Zure esperientziatik, zein da gaur egun sagardoaren kulturak duen eronkarik handiena?**

Museoen ikuspegia asko aldatzen ari dela ikusten dugu: Katalunian, Valentzian, Frantzian... Eta guk ere gure bidea egin dugu nazioartera eta turismoa zabaltzen, hezkuntzan eta hirugarren adinean indarrak jartzen... Baina Sagardoetxeak herrira begiratu behar duela uste dugu. Ateak zabaldu behar ditu, Sagardoetxeak eztabaida gunea



izatea lortu behar du eta hori da gure benetako erronka, baita hemen dagoen dokumentazio guztia mantentzea ere. Jendeak argi izan behar du Sagardoaren Ondarearen defentsan ari garela. Lan handia egiten ari gara, baina oraindik asko dago egiteko, eta herriaren beharra dugu.

**Zure ustez, zer eginkizun dute gazteek tradizio hori bizirik mantentzen?**

Gazteek izango dute formazio berria jasotzeko aukera. Ikusita sagarrak eta sagardoak zer aukera ematen dituen sukaldean, mahatsak eta ardoak baino askoz gehiago, oraindik gauza asko daude deskubritzeko. Gazteek aukera dute etorkizunean gauza berri asko egiteko eta ni seguru nago egingo dituztela, baina betiere formazio egokiarekin.

**Zein da zure sagar barietate gogokoena eta zergatik?**

Bi datozkit burura, etxeko oroitza penak ekartzen dizkidan burura. Batetik, Txalaka, betiko eta herriko sagar kuttuna. Erreta jateko edota sagardogintzan erabiltzeko. Eta bestetik, Palestina. Gure etxean beti izan da jateko sagarra, uztaila-abuztuan etortzen zen eta baserritarrei eskatzen genien etxerako. Oso gustukoak ditut biak.

**Sagardoa hitz batean definitu beharko bazenu, zein izango litzateke eta zergatik?**

Beti daukat buruan Andoni Luis Adurizek Sagardo Berria Egunera gonbidatu genuenean esan zuen esaldi bat: Sagardoa kultura botilatua da. Oso egokia dela iruditzen zait.

# Udalak martxan jarri ditu presentzia digitala indartzeko eta merkataritza sustatzeko planak

Siadeco elkarteak egindako ikerketak agerian utzi du gazteek arreta, euskara eta digitalizazioa baloratzen dituztela. Udalak Bidelaguntza zerbitzua eta dirulaguntza berriak eskaini ditu merkataritza sektorea gazteen beharretara egokitzeko.

**Azken 20 urteetan biztanleria % 89,3 hazi den arren, merkataritza eskaintza ez da neurri berean handitu**

Astigarragako etorkizuneko kontsumitzaileen erosketa- eta kontsumo-ohituren eta -beharren azterketa



2025eko otsaila

Merkataritza-establezimenduek, batez beste, 12,9 urteko ibilbidea dute, eta gehienek 64,4 m<sup>2</sup> eskaintzen dituzte salmentarako. Urumea Berri auzoko dendak berriak eta handiagoak dira, baina alokairuan daude gehienak; Erdialdekoak, berriz, zaharragoak, txikiagoak eta jabetzan dira. Merkataritzaren sektorea nabarmen feminizatua da: arduradunen %61,9 eta langileen %70,7 emakumezkoak dira.

Herritarren %69 beste toki batzuetatik etorritakoak dira, gehienak Donostiatik, %71k goi-mailako ikasketak ditu eta %70ak herritik kanpo egiten du lan. Euskara-gaitasuna, berriz, urte gutxiago daramatenen artean txikiagoa da.

Erosketa-ohiturei dagokienez, herrian elikagaiak erosten dira nagusiki, eta bezeroek zerbitzuaren tratua ona, euskarazko arreta eta ordutegia baloratzen dituzte. Arropa, oinetakoak eta bestelako produktuak Donostian edo inguruko hipermerkatuetan erosten dira, eskaintza eta erosotasuna direla eta.

Gazteek Internet bidez erosten dute geroz eta gehiago. Baina ez hori bakarrik. Erosketa egin aurretik erabiltzen dituzten kanal eta bitartekoak eremu digitalekoak dira.

**A**stigarragako Udalak eskatuta, etorkizuneko kontsumitzaileen erosketa eta kontsumo ohituren eta beharren azterketa egin du Siadecok.

Lan horren helburua izan da Astigarragako 19 eta 44 urte bitarteko herritar gazteen erosketa ohiturak eta beharrak aztertzea, ondoren herriko merkataritza eurentzako erakargarriagoa izateko eskuhartzeak egiteko. Zeharkako zein zuzeneko informazio iturriak baliatu dira. Zuzeneko informazioa jasotzeko bi inkesta egin dira: lehenengoa, herriko merkatariei; eta

bigarrena, 19 eta 44 urteko astigarrarrei.

Egindako azterketaren Emaitei dagokienez, hauek dira ondorio nagusiak: batzuk:

Azken bi hamarkadetan Astigarragako hazkunde nabarmena izan du: Biztanleria ia bikoiztu da (%89,3), etxebizitza kopurua %72,3 hazi eta errenta erabilgarria igo, batez ere emakumeen kasuan. Hala ere, merkataritza-eskaintzak ez du erritmo bera izan; 2009tik 2024ra, hamahiru establezimendu galdu dira.

Digitalizazioan gabezia nabari da: establezimendu askok ez dute presentzia digitalik eta salmenta eta komunikazio kanal digitalak urriak dira; %19ak soilik eskaintzen dituzte. Merkatariek erronkatzat jo dute beraien presentzia digitala lantzea eta horretarako prestakuntza behar dutela adierazi dute.

Euskara presente dago establezimendu gehienetan: hamarretik ia bederatzitan euskaraz aritzeko aukera dago, baina erabilera apalagoa da (%65,3 inguruk darabil batez ere euskara). Hizkuntza-paisaian, kanpoaldean euskara hutssezko testuak nagusi dira (%42,9); barrualdean, ordea, elebitasuna (%76,2) eta gaztelaniaren presentzia handiagoa dira.

Azkenik, Astiko Elkarteak ezagutzen dute herritar eta merkatarien erdiek, eta balorazio orokorra ona da: merkatarien %80k eta herritarren %71k positiboki baloratzen dituzte elkartaren ekintzak..

## Merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza establezimenduen digitalizazioa sustatzeko Bidelaguntza zerbitzua



**I**kerketan ateratako ondorioetako bat izan da herriko establezimenduek, oro har, komunikazio digitala eta kanal digital bidezko salmenta (Instagram, Whatsapp...) lantzeko beharra dutela. Hori horrela, kontsumitzaile gazteek eginiko eskakizunetara egokitzeko, Udalak erabaki du herriko establezimenduei bidelaguntza zerbitzua eskaintzea. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduek erabili ahal izango dute zerbitzua. Establezimenduek egun duten

presentzia digitalari buruzko diagnostia jaso eta eremu digitalean aurrera egiteko helburuak finkatu, ekintzak zehaztu eta garatzeko laguntza jasoko dute.

Herriko hogeit hamar establezimenduk eman dute izena Bidelaguntza zerbitzuan eta Udalak erabaki du hamar partaidetako bi txandetan burutzea. Lehenengo taldea apirilaren bukaeran hasi zen, eta bigarrena urrian hastea espero da.

## GUZTION: ekintzailtza sustatu eta jarduera ekonomikoak sendotu eta mantentzeko dirulaguntzak



**Negozioak sendotu eta berritzera bideratutako DIRULAGUNTZAK.**

**SUBVENCIÓN para la consolidación e innovación de negocios.**

**E**remu digitalean presentzia aktiboa lantzen jarraitzeko dirulaguntza lerro berria onartu du Udalak GUZTION dirulaguntzen baitan. Funtsean, eremu digitalean herriko establezimenduen presentzia areagotzeko hainbat ekintza dirulagunduko dira: marketin digitaleko plan eta zerbitzuak, online publizitate-kanpainak, euskarri digitalen garapena, bilatzailetan posizionatzea eta

sare sozialak, online salmentarako eta merkataritza digitalerako plataformak sortzea, eta abar.

1.350€-ko dirulaguntza emango zaio gehienez eskatzaile bakoitzari. Orotara 22.000€-ko aurrekontua izango du deialdiak. Lehenengo lerroa (6.500€), herrian enpresa ekimenak abiarazteko hasierako gastuekin laguntzera bideratuko da. Bigarren

lerroa (10.000€), berriz, Astigarragako merkataritza-gune nagusian hutsik dauden lokaletan jarduera ekonomiko berriak abian jartzen laguntzeko erabiliko da. Azkenik, hirugarren lerroa (5.500€), Astigarragako jarduera ekonomikoak mantendu eta sendotzera bideratuko da. Eskarera kopuruaren arabera, dirulaguntzen zenbatekoa handitzeko aukera izango da.

## Analizando los hábitos de consumo de la juventud: El Ayuntamiento pone en marcha planes para reforzar la presencia digital y renovar el comercio

El estudio realizado por Siadeco, a petición del Ayuntamiento de Astigarraga, revela que las personas jóvenes del municipio valoran especialmente la atención al cliente, el uso del euskera y la presencia digital de los comercios. El informe, centrado en personas de entre 19 y 44 años, muestra que a pesar de que la población ha crecido un 89,3 % en los últimos 20 años, el número de establecimientos comerciales ha descendido, con la pérdida de 13 comercios desde 2009. Asimismo, se ha detectado una importante carencia en digitalización: sólo el 19 % de los establecimientos ofrece venta por canales digitales, y muchos carecen de presencia en redes sociales.

Ante este contexto, el Ayuntamiento ha puesto en marcha el servicio Bidelaguntza, un programa de asesoramiento individualizado dirigido al comercio, hostelería y servicios locales, con el objetivo de acompañar a los negocios en su proceso de digitalización. Veinte establecimientos participarán en esta primera edición.

Además, dentro del programa de ayudas GUZTION, el Ayuntamiento ha abierto una nueva línea de subvenciones para apoyar la presencia digital de los negocios locales. La convocatoria cuenta con un presupuesto global de 22.000 €.

Estas medidas buscan adaptar el comercio local a las necesidades de las nuevas generaciones y reforzar la actividad económica del municipio. El Ayuntamiento subraya su compromiso con un desarrollo comercial sostenible, inclusivo y enraizado en el territorio.

Eider Alonso eta Axier Saralegik argi ikusi dute.

## Eta zuk, nola ikusten duzu?

Uztailaren 24an, Astigarragako Barandiaran Plaza esperientzia berezi eta harrigarri baten agertoki bilakatuko da.

**Etorkizuneko Astigarraga zure begien aurrean... baina, nolakoa?"**



Eta zuk,  
**NOLA  
IKUSTEN  
DUZU?**

**#NikAstigarragan**

Uztailak 24

Barandiaran plaza

# Astigarragako Udal Liburutegia: gertutasuna, zerbitzu publikoa eta etengabeko bilakaera

Irakurtzeko leku bat baino askoz gehiago da Astigarragako Udal Liburutegia: adin guztietarako topagune, ikas-kuntza eta kulturarako espazio publikoa da. Zerbitzu modernoekin eta programazio biziarekin, herriaren egunerokotasunerako ezinbesteko baliabide bilakatu da.



Gari, Liburutegiko laguntzailea eta Martin, Liburutegiko eta artxiboko arduraduna



## Gero eta gehiago erabiltzen den zerbitzua

2024an 31.000 bisitatik gora jaso ditu liburutegiak eta 13.000 mailegu inguru kudeatu ditu. Erabiltzaile-komunitatea ere handitu da: gaur egun 2.688 bazkide ditu, hasi haurretatik eta erretiratuetaraino.

## 30.000 arrazoi baino gehiago irakurtzeko

Aldian-aldian berritzen diren 30.000 dokumentu baino gehiago ditu, gehienak euskaraz eta gaztelaniaz. Liburutegien arteko maileguari esker, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko edozein dokumentu ere eskuratu daiteke.

## Liburuak baino askoz gehiago

Wifia, ordenagailuak, prentsa, aldizkariak, filmak, mahai-jokoak eta eLiburutegia liburutegi digitalerako sarbidea eskaintzen ditu. Gainera, edonork egin ditzake iradokizunak liburutegiak erosteta berriak egiteko.

## Jarduerak eta bizitza kulturala

Urte osoan ipuin kontalariak, irakurketa klubak, haurrentzako tailerrak, hitzaldiak eta Bookcrossing bezalako kanpaina bereziak antolatzen ditu. Herriko eskola eta eragileekin ere lan egiten du, eta proposamen berriak prestatzen ditu, hala nola egileekin topaketak, erabiltzaileek liburuak gomendatzeko aukera eta *Mintzoan Kux-Kux* proiektua, irakurzaletasuna haur txikiak dituzten etxeetara hurbiltzen duena.

## Astigarragarekin batera eboluzionatzen duen gunea

2023az geroztik, liburuzainarekin koordinatuta lan egiten duen kultur teknikari batekin indartu da taldea. Erabilera, parte-hartzea eta komunitatearekiko lotura zabaltzen jarraitzeko ildo berriak garatzen ari dira elkarrekin.

Informazio guztia hemen kontsulta dezakezue: [liburutegia.astigarraga.eus](http://liburutegia.astigarraga.eus)

## La Biblioteca Municipal de Astigarraga, un servicio público que no deja de crecer

Con más de 30.000 documentos disponibles, la Biblioteca Municipal de Astigarraga se ha consolidado como un espacio cultural clave del municipio. En 2024, recibió más de 31.000 visitas y gestionó casi 13.000 préstamos, además de seguir sumando personas usuarias y ofrecer acceso digital a través de eLiburutegia.

Además de fomentar la lectura, el espacio acoge actividades para todas las edades, como cuentacuentos, clubes de lectura o sesiones de formación. La biblioteca también se adapta a las necesidades de distintos colectivos, como la infancia, personas mayores o quienes estudian oposiciones, y trabaja ya en proyectos de mejora para el futuro.

## Euskaraldiaren biharamuna

### El día siguiente al Euskaraldia

Txapak kendu ditugu, baina Euskaraldiaren oihartzuna oraindik bizirik dago herrian. Bi astez hizkuntza-ohiturak as-tindu eta hausnartu ostean, orain dator benetako erronka: egunerokoan zer? Zein da biharamun horren norabidea eta nola jarrai dezakegu euskara ardatz izaten gure harremanetan? Galdera horiek abiapuntu hartuta, Astigarragako udal taldeei eskatu diegu beren iritzia partekatzeko.

Hemos quitado las chapas, pero el eco de Euskaraldia sigue vivo en el pueblo. Después de dos semanas de agitación y reflexión sobre los hábitos lingüísticos, ahora viene el verdadero reto: En el día a día, ¿qué? ¿Cuál es el rumbo de ese siguiente día y cómo podemos seguir teniendo el euskera como eje en nuestras relaciones? Partiendo de estas preguntas, hemos solicitado a los grupos municipales de Astigarraga que compartan su opinión.



Xabier Urdangarin  
EHBildu

#### **Euskaraldiaren biharamuna 365**

*Euskaraz bizitzeko eta euskararen normalizatorako ez da aski bi urtean behin txapa paparrean jartzea edo korrika egitea (beharrezkoa bada ere). Denon ahalegina behar da, han eta hemen, 365 egunez.*

*Argi gorriak piztuta dauzkagu, bai. Baina, itxaropentsu egoteko zantzuak baditugu Astigarragan, egoerari aurre egiteko nahia eta borondatea erakusten dutenak, etsia hartzera eraman ohi gaituzten go-goeta gris-ilunak albo batera utzita.*

*Bat, Euskaraldian parte hartu duten herritar eta entitateen kopurua 789 pertsona eta 65 entitate. 16 urtetik gorako astigartarren %10ek baino gehiagok hartu du parte. Oso emaitza ona da, aurreko ekitaldietako parte hartzea gaituzten. Entitateen atxikimendua ere azpimarragarria izan da.*

*Bi, Astindu elkarteak aurkeztu berri dute, Astigarragako Euskara Elkarteak. Herritar talde bat bildu eta elkarteak eratu dute, denok astintzeko. Ez izan beldurrik Udala Astintzeko. Eta hasi dira gaiak lantzen, proposamenak egiten...*

*Hiru, Euskararen Kontseilua. Udala euskararen kontseilua eratzea doa, herriko euskara plana indartzeko eta eragileekin duen lankidetzak sendotzeko.*

*Lau, euskaltegi berria. Ekainean euskaltegi berria egiteko obrak egiteko lehiaketa hasiko du Udalak. Obrak urtea amaitu aurretik hasiko dira.*

*Hortxe erronka, 365 egun euskaraz 7.800 astigartar.*

Maria Otaegi  
EAJ-PNV

*Ale honetarako EAJ-PNVk ez du iritzirik bidali.*

Patxi Suarez  
PSE-EE

#### **Euskaraldiaren biharamuna**

*Maiatzaren 25a pasatu zen, Euskaraldia bukatu zen, eta egun betiko galdera: "Orain zer?". Askotariko ekimenak antolatu ziren, eta guztiok noizbait hauek batez disfrutatzen aukera izan genuen, belarri prest ala ahobizi.*

*Baina orain zer? Bi erantzun mota bururatzen zaizkit. Alde batetik, pentsatu nahiko nuke zer egin dezakegun herritarrok Euskararen alde, eta zergatik hain garrantzitsua den; Beste alde batetik, zer egin dezakeen instituzioetatik Euskara sustatzeko, eta Euskararekiko gogo handitzeko.*

*Herritarroei dagokionez, hurrengo hausnarketa egitera animatuko nituzke: bi hizkuntza baditugu, zergatik konformatuko gara hizkuntza batekin? Zergatik konformatuko gara herritasunaren alde batekin hitz egitearekin? Eta hori gure hizkuntza propioa hitz egiteko eskubidea ahaztu gabe, edozein dela ere.*

*Istituzioetan parte hartzen duten eragileak, bai gobernuetan bai oposizioan eta kolore guztietakoak, Euskaraldiaren alde jarraitzea animatuko nituzke: hau da herritarrek Euskarara erakartzea; izan ere, herritar batzuek edonola ere pentsatzen dute haiei Euskara ezartzen zaiela.*

*Eta hau da, nire aburuz, Euskaraldiaren biharamunaren erronka nagusia: eragile guztion artean jakin-mina eta nola ez maitea handitzea; lortzen badugu, esan ahalko dugu Euskarak osasun handia duela.*

# Ekainak 28

## LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

LGTBIQ+ kolektiboa: Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual, Intersexual, Queer eta aurrekoetan kabidarik ez duten (+) pertsonak osatzen duten kolektiboa

## Ekaina LGTBIQ+ HARROTASUNAREN HILABETEA!

### EKAINAK 4 asteazkena

18:30 | Emakumeon Etxean

#### FAXISMOAREN AURREAN, HARROTASUNEZ AURRERA!

Hitzaldia

Eskuin-muturraren indartzeak LGTBifobiari bultzada eman dio eta horren adierazle dira kolektiboak jasaten dituen erasoen eta haien kontrako delituen gorakada.

Hizlaria: Egoitz Arbiol Albeniz (Hiruki Larroxa).

### EKAINAK 11 asteazkena

17:30 | Emakumeon Etxean

#### BURUNTZALDEKO TRANSMARIBIBOLLO SAREAREN

Aurkezpena

Eskualde mailako sare hau zergatik eta zertarako sortu zen, nola funtzionatzen duten eta herritarrek nola har dezaketen parte azalduko da.

### EKAINAK 18 asteazkena

18:30 | Emakumeon Etxean

#### HERRI BAT DENONTZAT: SEXU-ANIZTASUNA ASTIGARRAGAN

Hitzaldi-tailerra

LGTBIQ+ pertsona askok herrietatik hirietara ihes egiten dute. Zergatik? Zertarako? Sexu eta genero aniztasunak urteetan sortu duen hausnarketa eta praktikak herrietan ere egitea falta da. Zer eskaini beharko lukete gure herriek?

Hizlaria: Egoitz Arbiol Albeniz (Hiruki Larroxa).

### EKAINAK 27 ostirala

19:30 | Erribera kulturgunean

#### ZINEGOAK

Film laburren emanaldia

ZINEGOAK Bilboko LGTBQ+ 22. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiarekin bat eginez hainbat film labur eskainiko dira ([www.zinegoak.com](http://www.zinegoak.com)).

### EKAINAK 28 larunbata

19:30 | Kontxa Etxeberria plazan

#### MIKRA

Zirku garaikide ikuskizuna

Berdinki zirku garaikideko konpainiak genero rol estereotipoak eta botere harremanen inguruko gogoeta bultzatzen du zirku disziplinaren bitartez, hau da, mugimendu eta akrobaziak erabilita.



Astigarragako Udala

Foru Enparantza 13

20115 Astigarraga

Tel: 943 335050

[udala@astigarraga.eus](mailto:udala@astigarraga.eus)

[www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus)

